

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Enpresa bat handitzeko ezinbestekoa da bezeroak mantentzea eta bezero berriak lortzea. Gure kasuan, hasi berriak garenez, bezero berriak lortu beharko ditugu, luzaroan gurekin jarrai dezaten eta gutxika enpresa munduan gehiago zabal



gaitezen. Horretarako, hainbat gauza izango ditugu kontuan, adibidez bezero berriekin harremanetan ari garen bitartean, aurretik ditugun bezeroen harremanak ezin ditugula galdu, bestela ez ginatekeelako haziko.

Bezeroari eskeiniko diogun harremana oso gertukoa izatea nahi dugu, modu hontan segurtasuna transmitituko diogulako. Gure produktua zein den kontuan izanda bezeroek gugan konfiatzea ezinbestekoa da eta harreman hotzen bidez hori ez dugu inola ere beteko. Horregatik bezeroarekiko gertu egotea izango da gure xedea.

Horretarako, hasiera batean, gure lehendabiziko bezeroek liburuekin batera gure ilustratzaileak marraztutako orri-markatzaile bat izango dute opari eta gure bildumako bazkide txartela egiteko aukera ere izango dute. Konfiantza hori lortzea ezin bestekoa da, gure ipuinak umeentzako diren arren eta hauek irakurriko eta barneratuko dituzten arren benetako bezeroak gurasoak eta ikastetxeak izango direlako, hauek direlako umei liburua eskura emateko ahalmena dutenak, hauek direlako nolabait esateko bitartekariak. Bazkide txartel honen bidez, hainbat deskontu eta berri jaso ditzakete gure inguruan. Gainera, noizean behin e-mail bat bidaliko diegu inkesta bat bete dezaten, gure liburuen inguruan iritzia emanaz, proposamenak aurreratuz... Beraien aportazioen bidez hobekuntzak egitea posible izango dugu gure helburua ahalik eta ondoen bete ahal izateko.

Sare sozialetako kontua ere izango dugu, Facebooken eta instagramen @nadutbildumak deiturarekin esaterako. Hauetan gure ipuinen argazkiak, deskontuak... azaleratuko ditugu eta geure izena entzutera emango dugu. Bezeroek argazkietan ekarpenak idatzi ahal izango dituzte eta adibidez instagrameko Direct-etik enkarguak egiteko posibilitatea ere izango dute. Interneteko harremana nahiko hotza izaten da eta horregatik webgune bat sortu ordez sare sozialez baliatzea ideia hobea iruditu zaigu, gertutasun gehiago bermatzen delako modu honetan. Irakurleek nahiz bezeroek galdetutako zalantzak argitzeko ere balioko dute kontu hauek eta bururatzen

zaizkien proposamenak botatzeko toki egokia ere bada, hantxe baitago kontaktua gure proposamen guztiak helarazteko. Proposamenez gain, baten batek kritika jarri nahi badu ere eskertuko genuke, iritzi guztiak oso baliagarriak baitira guretzat eta beraiei esker hainbat gauza aldatu ditzakegulako.

Honetaz gain azaltzekoa da gure produktuak ez direla pertsonalizatuak izango, hau da, bezero guztientzat produktuak berdin salduko ditugu. Azken finean estereotipoak haustea eta egungo edukazio sisteman aldaketa bat egitea da gure helburua, beraz berdintasuna egon dadin deben artean ipuin denak berdinak izango dira. Hori bai, nahi ezker bakoitzak beste ukitu bat eman ahalko dio ipuinari idazleen eta ilustratzailearen sinaduren bidez, edota orri-markatzaileen bidez.

Gure bezeroekin euskaraz mintzatuko gara, lehendabiziko hitza euskaraz emango diegu, hizkuntza hay badakigula ikusi dezaten. Baina, bezeroren batek eskaraz ez badaki, hiruon artean honez gain beste hainbat hizkuntza badakizkigunez, ez dugu uste arazo larririk izango dugunik beraiekin komunikatzeko. Hala ere gure produktua hasiera batean euskaraz salduko dugu eta bezero euskaldunak espero ditugu. Aurrera begira gure



produktua beste hainbat hizkuntzetara zabaltzea gustatuko litzaiguke, baina, poliki-poliki hasiko gara, ez dugu gure lana oraindik guztiz zabaldu nahi Euskal Herrian arrakastarik lortzen ez badu, horregatik hemen zer gertatzen den ikusten dugunean hartuko dugu erabakia.

